


Bonbereneak musika eta antzerkia antolatu ditu, esaterako ▶ 3



‘Kutsidazu bidea Ixabel’, etzi, Tolosako Leidorren

AINERE TOLOSA ▶ «Pantailan emaitza osoa ikustean sinesten duzu zinema egin duzula»


JOSE LUIS UGARTEMENDIA ▶ «Parte hartzeko esan zidatenean, aurrera, esan nion nire buruari» ▶ 4-5

TOLOSALDEA ▶

Eskualdeko ordezkariak, Gipuzkoako Txapelketan

Zazpi-Iturri eta Aurrera-Saiaz bertan ari dira ▶ 5

GAZTELU ▶



N. LIZARTZA

Iriondok Aranaldereen bizitza bildu du

‘Bidegileak’ liburua argitaratu du ▶ 6



Leizako II. Pilota Txapelketako irabazleak, erabakita

LEITZA ▶ Pasa den igandean jokatu zituzten, sei maila ezberdinetako pilotariak, Leizako II. Pilota Txapelketako finalak, Amazabal pilotalekuan. Bertan Leizako pilota eskolako sei ordezkari izan ziren, Mikel Sagastibelza Egues, Mikel Sagastibelza Lasarte, Jon Iparragirre, Jon Jaunarena, Aritz Sagastibelza eta

Mikel Olazabal, hain zuzen ere. «Maila altua» erakutsi zuten pilotariak eta «giro ezin hobea» sortu zen herrian. Neurketen ondoren, aurrakua eskaini zieten kirolariak eta Abel Barriolak eta Ibai Bengoetxeak banatu zituzten sariak. Argazkian, finalera heldu ziren bikoteak, euren txapelekin eta garaikurrekin. NEREA LIZARTZA ▶ 7

TOLOSA ▶

Zine forumeko ohiko saioei ekingo diete gaur, Leidorren

Radu Mihailenau-ren ‘Vete y vive’ filma ikusgai, 21:30etik aurrera ▶ 2



KILOMETROAK 06
URRIAK 1
OLARTZUN
inGoYeU! inGoYeU!
www.kilometroak.net

PRIMERAN
PASA
PASATU
GABE

KMK06

HAURTZARO
UKASTOLA

GIZARTEA ▶

'Baliagarri izatearen grazia', gaur

I. Terradillos ▶ Sanatana Dharma Yoga eskolak antolatutako VII. Kontzientzia Globalari buruzko jardunaldietan, herenegun Bharat Martin-ek *Bizitzaren asmoa* hitzaldia eskaini zuen —argazkian—. Gaurkoan, *Isiltasunaren boterea* tailerra izango da yoga eskolan, 09:30etik 11:30era eta 17:00etatik 19:00etara, eta Kultur Etxean, 20:00etan, *Baliagarri izatearen grazia* hitzaldia, Javier Aizpiriren eskutik. i.t.



KULTURA ▶

Osteguneroko ohiko saioekin hasiko da, gaur, zine foruma

Orain arte bezala, 21:30ean izango dira saioak; Radu Mihailenau-ren 'Vete y vive' pelikula eskainiko dute, gaur

IÑIGO TERRADILLOS

Pasa den ostiralean hasi ziren Leidor eraberrituan filmen proiektzioekin, eta gaurkoan ekingo dio zine foruma ohiko osteguneroko saioari. Orain arte bezala, 21:30ean izango da saioa, eta *Vete y vive* pelikula da, gaur eskainiko dutena.

Film honek 2005eko ikuslearen saria eta Europa Cinemas-Berlin saria jaso du. Milaka afrikar errefuxiatu Sudango kanpamentura iristen dira. Heriotza ziur batetik salbatzeko ama kristauak 9 urteko semea konbentzitzen du judua dela esateko. Umea agindutako lurrrera iristen da; bertan, bere

sekretuaz ohartuko diren bel-durrarekin egongo da; ez da judua, ez eta umezurtza ere, arraza beltzekoa baino ez da. Ume honen inguruko istorioa kontatuko du, beraz, Radu

Mihailenau-ren *Vete y vive* pelikulak.

Ondorengo asteetan ikusi ahalko diren pelikulak ere zehaztu dituzte dagoeneko: datorren astean, urriaren 5ean *Es-*



Pelikularen kartela. HITZA

condido eskainiko dute; urriaren 19an, *Cruzando el puente*. *Los sonidos de Estambul* eta urriaren 26an, *La pesadilla de Darwin* filma izango da ikusgai.

MANU SANZ ▶ ZINE-KLUB ELKARTEKO KIDEA

«Tolosako zinezaleen erreferentzi izatea gustatuko litzaiguke»

30 urte daramatza zine-klubak, Tolosako zinezaleen elkarteak, lanean. Osteguneroko zine-klub saioa antolatzen zuen; hemendik aurrera, ordea, zine forum izenarekin, Udalaren ardurapean izango dira saioak, eta filmen aukeraketan lagunduko du elkarteak. **Nolatan egin duzue aldaketa hori?** Zinearen ardura Udalaren

esku geratzea izan da aldaketaren helburua. Hiriburuetan, esaterako, kultur departamentuaren ardurutako bat izaten da zinea, baina herrietan ez; hori bultzatu nahi dugu guk. **Zein izango da zuen lana?**

Aurrerantzean, Udalak antolatuko ditu proiektzioak, ostegunerokoak eta asteburukoak. Guk osteguneroko, hau da, zine forumeko pelikulen aukeraketan

kolaboratuko dugu. Horretaz gain, ziklo desberdinak antolatzeko ere izango da gure eginkizuna. Jubilatuei eskainitako zinema edota, euskarazko azpitu-ludun bertsiotik originalen saioak, esaterako.

Zein da zuen helburua, elkarre bezala?

Esparru sendo bat lortu nahi dugu, helburu kultural eta sozialekin. Halaber, Tolosako zinezaleen erreferentzi izatea gustatuko litzaiguke eta beraien nahiz beste zine klubekin harreman zuzena izateko bideak irekitzen ahaleginduko gara. Zinemaren gaur egungo egoera oso kritikoa dela aintzat hartuta, lan ugari dago egiteko. ◀

KULTURA ▶

'Esperientziak' igandeetan ere ikusgai

«*Esperientziak* proiektuak izan duen arrakasta ikusita», Aranburu jauregiko aretoetan, bertako arduradunek erakusketak honek irauten duen bitartean, hau da, azaroaren 12a bitarte, igandeetan ere irekitzea erabaki dute. Orduetgia, gainontzeko egunetan bezala, 17:30etatik 20:30etara izango da igandeetan ere.

KULTURA ▶

Cuerdo eta Jubin abenturazaleen bidaia ikusgai

Hego Amerika motoz, *Chechen bidetik* dokumentala izango da ikusgai gaur, Leidorren 20:15ean. Lan honetan, Angel Cuerdo eta Fabiola Jubinek lau hilabeteetan, lurralde hauetan barna motorrez egindako bidaia kontatzen dute.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
 - ▶ Anoeta-Alkiza-Hernialde. Medikua: 65 23 39
 - ▶ Asteasu. Medikua: 692423
 - ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
 - ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
 - ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
 - ▶ Ibarraldea. Osasun ebea: 672411
 - ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
 - ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720
 - ▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800
 - ▶ Orendain. Medikua: 655595
 - ▶ Orea. Medikua: 682228
 - ▶ Tolosa.
 - ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroako dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
 - ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzarar autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurramendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

IRAGARKIA

Irurako Udalean jendaurreko informaziorako eta alegazioak aurkezteko jarrita dago Irurako Udala Hirigintza Planeamenduaren Arau Subsidiarioen Berraztertzeara. 2006ko irailaren 13ko 116 Alkate dekretuaren bidez erabaki da jendaurreko erakustaldia eta alegazioak aurkezteko epea luzatzea 2006ko urriaren 11arte, egun hori barne.

Iruran, 2006ko irailaren 22an.
ALKATEA

iragarki laburrak ▶

LAN HEZKUNTZA

Gidariak. Plaza libreak betetzeko behar dira: Eusko Jaurilaritzan, Udalebeetan eta Erakunde

Publikoetan. 943313782.

Harreragileak -Administrari laguntzaileak. behar dira Erakunde Publikoetan. 943313782.

GIZARTEA ▶

Bertso saioarekin ekingo dio denboraldi berriari Bonbereneak

Andoni Egaña, Xabier Silbeira, Amaia Agirre, Jokin Uranga eta Miren Artetxe ariko dira, etzi, 22:30etik aurrera

ESTI EZEIZA

Ia hiru hilabeteko atsedenaldiaren ondoren, etzi ekingo diote denboraldi berriari Bonbereneakoek. Hala hil honetako agenda nahiko lasaia izan bada ere, datorren hilabetera

begira, ekitaldi ugari antolatu dituzte. Hala ere, iraila bukatzerako hitzordu bat prestatu dute asteburu honetarako. Hala, etzi, 22:30ean bertso saioa ekingo dute bertan, 3 euroren truke, izen handiko bertsolariekin. Horien artean izango

dira Andoni Egaña zarauztarra, azken lau Bertsolari Txapelketa Nagusietako irabazlea. Xabier Silveira, Nafarroako Bertsolari Txapelketako irabazlea. Hauekin batera ariko dira ere, puntako beste hiru bertsolari: Amaia Agirre villa-

bonatarra, Jokin Uranga azpeitiarra eta Miren Artetxe hendaiarra. Gai jartzaile lanetan berriz, Unai Muñoa ariko da.

«Orain arte antolatutako mota honetako saioak, bertso afariak izan dira, baina oraingoa saio indartsua izango da», hala azaldu zuten, atzokoan, antolatzaileek. Ekitaldian, bertsolari gazteak, nahiz izen handiko beteranoak arituko dira elkarrekin. Horren adibide da Andoni Egaña, eta Bonbereneako enanetan, «aspalditik zuen hona etortzeko gogoan».

Lehenengo bertso saio hau, Euskal Herriko Bertsolari Elkartearekin elkarlanean antolatutako ekitaldia da. Izan ere, 2006-2007ko denboraldian zehar beste bi edo hiru jardunaldi antolatzeko asmoa dute.

Urriko ekitaldiei dagokionez, *Bonberenea Suffle* DVDaren aurkezpena azzimarratu nahi izan dute antolatzaileek. Bertan, Bonbereneatik azken urteetan igaro diren 33 talde ezberdinen ekitaldiak bildu dituzte.

EGITARAUA ▶
KONTZERTUAK

Urriak 6, ostirala. 22:30ean, Chicarella eta Une.
Urriak 7, larunbata. 22:30etan, Biok eta Pog mo thon.
Urriak 13, ostirala. 22:30ean, Sorkun eta Moksha.
Urriak 20, ostirala. 22:30ean Kerobia eta Etxe.
Urriak 21, larunbata. 22:30ean, Bad Sound System taldearen emanaldia izango da.
Urriak 27, ostirala. 22:30ean, Def Con Dos.
Urriak 28, larunbata. 22:30ean, Zea Mays, Eraso! eta Jone izango dira, *Bonberenea Suffle* DVDaren aurpezpenean.

ZINE-KLUBA

Urriak 8, igandea. *Poseidon* filma.
Urriak 22, igandea. *Super Nacho*.

ANTZERKI ETA PAILAZOAK

Urriak 21, larunbata. Egunean zehar, Graffiti erakustaldia izango da. Eta arratsaldean, Bonberenea 6. Skate Txapelketa.



Amaia Agirre eta Jokin Uranga Bonbereneako afari batean. HITZA



Moksha taldeak kontzertua eskainiko du, Bonberenean. HITZA

HEZKUNTZA ▶

Ikasturte berriaz hitz egiteko bilera Orixeko gurasoek

Orixeko Institutuko irakasleak, bertako ikasleen gurasoekin bilerak egiten hasiko dira. Honekin, 2006-2007ko ikasturtearen berri emango diete, eta era berean, gurasoek, seme-alaben tutoreak ezagutu ahal izango dituzte. DBH 1ko ikasleek, esaterako, urriaren 2an izango dute bilera. 2. mailakoek, berriz, datorren hilaren 3an, baita ere 17:00etan. 3. mailakoek, egun bat beranduago egingo dute, 19:00etan. Eta azken mailan daudenentzat, urriaren 4ean izango da hitzordua, 18:00etan. Batxilergoko ikasleen gurasoek berriz, 18:30ean izango dituzte bilerak. Lehenengo mailakoek, urriaren 2an, eta bigarrenekoek berriz, 3an.

KULTURA ▶

Urteurreneko egutegia osatzeko argazki lehiaketa

Tolosa 750 Fundazioak, Tolargik eta Tolosagasa Tolosako 2007. urteko egutegi ofiziala egiteko argazki lehiaketako epea bihar amaituko da. Aurten herriaren sorreraren ospakizuna aprobetxatuz gaia 750. urteurrena izango da. Tolosar guztiei zuzendutako lehiaketa honetan, partehartzaileek Tolosako irudi esanguratsuenak aurkeztu ahal izango dituzte, hala nola, herriko arkitektura, bertako jendea, tradizioa, jaiak, kirola, ingurumena... Aukeratutako argazkiak Tolargi Tologasa 2007 urteko egutegian agertuko dira. Argazki irabazlea berriz, egutegiko portada izango da, eta urtebeteko argia eta gasa doan izango du.

ENERGIA ▶

Tolargik argindar mozketak egingo ditu egunotan

«Bezeroei zerbitzu hobea emateko lanen ondorioz», Tolargi instalazioetan hobekuntza eta mantenimendu lanak egiten ari da; hori dela eta, datorren astean argindar mozketak egingo dituzte. Astelehenean eta asteartean, 08:15etik 11:15era moztuko dute Gudari kaleko 12an eta Nafarroa Etorbideko 11n. Asteazkenean, ordu berean, Samaniego 3an.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Eztabaida. Zein dira ikasturte edo lanaldi berri honetarako dituzun erronkak?

KIROLA ▶

Atletismoko entrenamentuak hasi dituzte

Ikasturtea hastearekin batera, Tolosa CFko atletismo eskola ere martxan da berriro. Hori dela eta, infantilak eta alebinak atzo hasi ziren entrenatzen. Saioak, beste urteetan bezala, Berazubiko atletismo pistan burutuko dituzte. Bestetik, benjamin mailakoak bihar hasiko dira. Informazio gehiago nahi duenak jo dezala Tolosa CFko bulegoetara.

KIROLA ▶

Hegats igeriketako ikastaroak abian

Hegats igeriketako —monoaleta— ikastaroak abian dira jada. Ikastaroak egunero burutzen dituzte 19:00etatik 22:00etara, adinarekin arabera taldeetan. Dena den, jardunaldi guztiak 12 urtetik aurrerako pertsonen zuzenduta daude. Interesatuak ager daitezela Tolosako kiroldegian, 19:00etan, eta galde dezatela harreraren Gorka edo Ibaiengatik.

iragarki laburrak ▶

LANA Zaintzailea. Neska euskaldun bat behar da ume bat zaintzeko eta ebeko lanak egiteko. Telefona: 626 47 87 47.

Tabernaria. Neska euskalduna behar da lau orduz lan egiteko, Tolosaldean. Eskarmentatua. Deitu 635 74 52 91 zenbakira.

ZINEMA ▶

'Kutsidazu bidea, Ixabel' filmaren estreinaldia izango da gaur Donostiako zinemaldian. Etzi, Leidorren emango dute. Bietan izango dira Ainere Tolosa, Ixabelen papera egiten duena, eta Jose Luis Ugarteandia, Ixabelen aitaren antzezpena egiten duena.

AINERE TOLOSA ▶ AKTOREA

Zaila izango da Kutsidazuru bidea, Ixabel-eko Ixabelelari pentsatu eta Ainere Tolosa (Tolosa, 1979) zizurkildarra burura ez etortzea. Antzerkian hainak emanaldi egin ondoren, zinemarako egokitzapena ere bera izan da protagonista.

Urduri estreinaldirako?

Ezetz esango dizut, baina inkontzienteki usue ditur zertxobait egongo naitela. Denak ea urduri nagoen galdetzen didate, eta egia esan jendeak galdetzen jarzen naiz.

Emanaldi gutxiatarako sarre- ra guztiak saliduta daude. Espero zenuen hainbeste?

Egia esan, nik ez dakit zer espero dudan. Jendeak ikusiko duela bai. Liburuak eta antzerkiak eduki duden arrakasta ikusita, jendea zinemaren ikusiera ere animatuko dela pentsatzen dut... Gainera Zinemaldian euskaratu baten ikusita luxu bat da.

Zer suposatzen du, hain justu, estreinaldia Zinemaldian egiteak?

Ezagutarazteko momentu paregabea. Zuzendariaren kasuan, leku ezin hobea da estreinatze-

ko, zuzendari berrien sailaean lehiatuko baitute. Beste guzti-entzako ere hainaxe izango dela pentsatzen dut. Gainera, aktore euskaldunak izanik, aprobetxatuko momentua da. Urtero ez gara Zinemaldian egongo, ni behintzat! Eta bizitza guztian gogoan izango dugun eguna izango da. Ahal du- dian gehien disfrutaztera noa. Larunbatean Tolosako Leidorrean emango da filma. Berezia izango da hori ere? Bai, hainaxe izango da. Kasual- tatean Kutsidazu bidea, Ixabel antzezlana Villabonan estreina- tu eta hurrengo emanaldia Tolosan egin genuen eta oraingo kasua ere antzezkoa izango da, pelikula estreina- tu eta segidan Tolosara. Nire in- terdugo jendea bertan izango da eta horrek poz handia emana-

ten dit. Gainera dena berritua dagoenez badut gogoak kuku- sen antzeko. Zure lehen lana da zinemar- ko? Bai. Asko ikasi dut eta denetik gainera. Hasteko, pelikula bat nola egiten den ikusten duzu. Gero erroñka ere banuen. Ixabe- len jarruan hainak aldiz egin nintzen, baina taula ganean, eta hor goiatu gaizak oso azkar doaz eta emozio handiarekin. Zinemaren berriz beste erritmo bat da eta per- sonaia asko errealaigoa izan behar du. Teleseriatarako ari zara lanean. Wazemank-en Ezberdin- tasunik bai zure burua pan- taila txikian edo handian ikusteak? Ez zait batere gustatzen nire burua ikustea. Ahalengintzen

naiz ez ikusten. Bestaldea badakit nire burua ikusi behar duela. Kritika egiteko, baina ikusi gabe ere nahiko kritika egiten diot. Teleserietan emai- tzak segidan daude eta orain- go kasuan urte bat egon gara zain eta horrek urduritzen nau. Hori da zinemaren des- berdintasunetako bat, dena askoz mantsosagoa dela. Pan- taila handian emaitza osoa ikusten duzunean orduan ai- nesten duzu zinema egin du- zula. Antzerkiak freskotasan han- diagoa omen da kamera au- trean aitzira baino. Antzerkian dena zuzenean da. Aurrez hilaibete batzuk egoten zara entseguak egiten, baina estreinau ondoren taula ganean jarri eta aurrera! Jendea- ri zuzenean ematen dizu eta

horrek fresko sentituzazten zaizu. Bestaldea badakizu taula gainean beti pertsonaia bera egin behar duzula. Teleserietan, berriz, nik orain Wazemank-en egiten dion gauzarik onena ia beti pertsonaia desberdinak egitesarena da. Luxu bat da hori. Beste aldean zera da, tele- sierietan dena mantsosagoa dela. Kamarak kokatu behar dira, gero entseguak egin eta ondo atera arte errepikat. Antzeztzean eta filmen on- doan izan dituzun aktoreak ez dira berdinak. Arrazoa egin zaizu beste Juan Martin bate- kin maitatzeak? Pena hartu nuen, ni nuen bainin- tzen pertsonaia bera egin giten zuen bakarra. Angel eta Egoitz hor zuden baina beste per- sonaia batzuk eginiko. 180 emanaldi egin eta gero Gorrre-



HITZA

gorekin oso arraroko egiten zitzaidan Ixabelela egitea beste egoera batzuetan eta jende ezberdinarik. Baina segituan konokiatu nuen aktoreekin eta esperientzia polita izan da horrelako aktoreekin lan egitea. Jende ona topatu dut, beste Juan Martin batekin maitatzeak ere ez zitzaidan gutere kostatu. Hasieran arrazoa egi-

ten zitzaidan baina hasieratik harreman estua egin genuen. Zer eman dizu Ixabelek eta zer eman dizu zuk pertso- nalarik? Ixabele zoriontsua da nahiz eta baserrtan nazka-nazka eginda egon. Ni gustura joango nintzateke bere baserrira uda bat pasatzera eta anaia guapoa bada... Norik dakin [kar, kar].

EUSKARA ▶

UEMAK jendea euskaltegietan ikastera animatzen du

ERREAKZIOA

Helduen euskaltutuz kanpaina dela eta, UEMAK Tolosaldeko herriek bere konpromisoa adierazi nahi dute euskararen normalizazioaren bidean. Euskaltegiak matrikulazio epea irekita dituzten, UEMAK herriek une hau baliatu nahi dute herriartarako euskaraz treba daituzten animatzaile euskaldunak euskaraz idatzi eta irakurteko ohitura har dezaten, eta euskaraz ez dakitenak ikas dezaten.

Malia eta eruditegi aurrera zabala dago Tolosako Aitzol udal euskaltegietan (943 631 006/943 652 243), eta Tolosaldeko AEX euskaltegietan (943 591704). Ordutegiarieta moldatuzko arazoak izanez gero, autokaskuntza bidez aritzeko aukera ere dago, nor bere errimora egokituta. Gainera, Tolosaldeko UEMAK herrietan diru laguntzak ematen dituzte euskaraz ikastegitak. Herrian taldea osatuz gero, eskolak bertan emango dituzte. Udaltzestean ere informazioa dago eskura. Tolosaldeko UEMAK herrietan bizimodua, ha osorik, euskaraz egiten da. Herrietan euskaraz bizitza garrantzitsua da euskaraz berreskuratzeko bidean. Udalek lan guztiak euskaraz egiteko erabakia hartu dute, eta horregatik dira Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko kide. Helburua Udalek herritarri eskaintzen dizkion zerbitzu oro euskaraz ematea da. Halere, bizitza eremu guztietan euskaraz egin ahal izateko aurrera- pausak eman behar dira.

PILOTA ▶



Aurrera-Saizen eta Zazpi-Ihurrien arteko partida bat. A. URSUA

Zazpi-Iturrik jokaturakoak irabazi ditu

Gipuzkoako Probintzian ez du Aurrera-Saizak zorte bera izan

NEREA URIBIZU

Aste honetan Probintzian jokatu dituzte Aurrera-Saizak eta Zazpi-Ihurrik. Zazpi-Ihurrik jokaturako partida guztiak irabazi ditu. 7 jokatu dituzte orotara. Ez da Aurrera-Saiaz, ordea, ondoegi ibili. Partida asko izan dira galdutakoak: 9 partidatik bi irabazi dituzte soilik, eta jokatu beharreko bat, ez zen jokatu: Ozkarbiren aurkakoa zutena, alegia. Hainok izan dira emaitzak: Aurrera-Saizakoa Mattin de la Sotilla 10, Zazpi-Ihurrikok Sukia, 22; Gazteleku 22, Barandiaran-Mujika, 00; Eratzkin 9, Urnista 22, Urnista

14, Beloki-Zuhiri 22; Real Sociedad 22, I Mujika 3; Irazusta-A, Mujika 22; Anaitasuna 1 11; Zumais 22, Bellera-Odozola 11; Zazpi-Ihurrik Baer-I Baer II 22, U. Renobales-Huarte 9; Añorga 2 pilota eskola 22, Aspe-Sempere 8. Zazpi-Ihurrik emaitza hauek jaso ditu: Aretxabaleta 4, Galarraga-Artelus 22, Iraola 22, Mundarra 11; Arkotia 9; Ron-Leunda 22; Zumarraga 6, Zelai-Ugartemendia 22; Hernani, 16; Beloki 22; Elbar 17, Legarreta 22. Ostratetik aurrera hirugarren asteko jokaturako dute bi pilota eskolak. Orduak aurrerago zehaztuko dituzte.

JOSE LUIS UGARTEANDIA ▶ AKTOREA

Aurretik aktore lanik egin gabe, Juan Luis Ugarteandiarri (Beluntza, 1945) Ixabelelari aita antzezteko aukera eskaini zioten. Gaur Zinemaldian izango da pelikula beste aktoreekin eta egun hasian filmaren estreinaldia egongo den hainbat hiri eta herrietan ere izango da.

Urduri estreinaldirako?

Ez, egia esan. Gustura noa, zerenolako giroa izango den ikusiera.

Nola gertatu zen Ixabelelari aita antzeztearena?

Pelikularako prezezioak ditur behar zuten eta Gazteluko alkateak Belauntzan gerezko zuzendela esan zien. Deitu zidaten galdetzeko eta etortzerik bazuten grabatzen eta lasai etortzeko esan nien. Hurrengo egunean etorri eta ni traktore- arkin joan nintzen eta esan zuten: «Hauxe da behar duguna aitaren papera egiteko. Nik esan nien ez zenuela iderriak gauza horietan eta berriak esan zidaten proba bat egiteko. Eta egin zenuen.

Handik la egunera etorri ziren.

«Pelikulan parte hartzeko esan zidatenean, aurrera, esan nion nire buruari»

Gustuko esperientzia izan da Jose Luis Ugarteandiarentzat pelikulan aritzea

Paper bat elkarri nuten eta irakurri ondoren sailotxoa egin nuen. Hortik bi egunera deitu zidaten beste probatxo bat egiteko. Eta zinemaren aitorresa batekin elkarrikizeta bat egiteko esan zidaten, ikusteko zer modur moldatzen nintzen. Inprobisazioa egin behar izan zenuen, beraz. Egin genuen saiotsa eta hurrengo egunean deitu zidaten nirekin geldituko zirela esateko. Hortik egun batzuetara gidola irakurtzen hasi nintzen. Artien lana bazuteko neukan erpresan. Jubitlatzeko lau egun falta nutezela hasi nintzen. Eta nola izan zen hasiera? Sekulan ez nintzen aritu horrelakoetan eta pentsatzen nuen nola funtzionatuko ote nuen nik, baina gero berehala hartu



U. GARCIA

nion martxa. Asko irakurtzen nuen. Kapituluaren aurretik eskatze nuen gidoiak neronek errepasatzen. Kapitulu balsean inili nintzen esu. Beste aktoreak beste pelikula batean hasi behar zuten eta aurreratu egin zuten grabatzea. Nik irakurri bakarrak egin nuen eta estu aritu nintzen. Gainontzekoan oso ondo.

Gustuko esperientzia, beraz.

Bai. Esan zidatenean parte hartzeko, aurrera esan nion nire buruari. Andreak eta semeak esan zidaten nik ikusiko nuela zertan sartzen nintzen. Eta oso gustura aritu nui. Denak famulioak bezala ibili gara, oso ondo. Testu asko nintzen garraian iflake Irastorak asko lagundu ninduen. Aktore onak da eta biko tarte bat genuen ga-

raian, berarekin aritzen nintzen. Ainerak ere lagundu ninduen. Eta kamera aurreko lotsak? Batere lotsatu gabe ibiltzen nintzen. Esan nien pelikularako arduradunak akats bat edo beste egingo niteula, baina ez ruela usate lotsatuko nintzenik. Gero, grabatzerakoan, batak eta besteak egindako akatskin barre pixka bat egiten gure enaren elkarrekin. Nola galditu da filma? Egindako guztia ez da sartzen

pelikulan. Ordu eta erdi sartu dute eta osoa kapituluetan bokatu dute teleserietan. Zer batek harritu zaitu filma egitekoan? Nik ez nuen pentsatzen pelikula bat egitea hainbeste lana zenik, hainbeste denbora eta hainbeste jende lanean aritko zenik. Aktore lanetan jarraitzeko asmoekin? Zer bati aterako baltit, ondo. Gainera, orain jubitlatuta nago eta denbora pehgiatut.

Advertisement for the film 'Kutsidazu bidea, Ixabel'. It features the title 'hitza Harpidedunaren txokoa' and the text '5 laguntzat bina sarrera, 'KUTSIDAZU BIDEA, IXABEL' pelikula ikusteko, Tolosako Leidor Zinemal, hilak 30 larunbata, 19:30ean.' There is also a small image of the film's poster and a logo for 'ZORTE ON!!'.

GAZTELU ▶ KULTURA

Gazteluko 'Kabaileroa'

Joxe Mari Aranalderen biografia idatzi du Joxemari Iriondok 'Bidegileak' liburuan

MADDI SOROA

«Zalduna ez, baina bai benetako kabaileroa huraxe». Horrela ematen dio hasiera Joxe Mari Iriondok, Joxe Mari Aranalde gazteluarraren biografia jasotzen duen liburutxoari.

Irailaren hasieran argitaratu zen *Bidegileak* liburuxkak Joxe Mari Aranalderen bizitzaren nondik norakoan berri ematen du, hiru ataletan banaturiko 25 orrialdeetan zehar.


Batetik, *Gazteluko Kabaileroa* izenpean, jaiotzetik hiltzerainoko bidea kontatzen du bertan, apaiz lanetan egindako bidearekin batera. *Irakasle eta idazle* izenburuarekin, idazle, irakasle, itzulpen eta hizlari gisa egindako lana jasotzen ditu bigarren atalak. Liburuaren azken zatian, berriz, *Ederren miresle* izenarekin, Aranalderen zaletasunen inguruan mintzatzen da idazlea, besteak beste, bertsozaletasuna eta euskalzaletasuna.

Aipatu, biografia osoa hamaika argazkirekin osaturik dagoela, modu horretan, *Gazteluko Kabaileroaren* radiografia osatzeko aukera zabalagoa bilakatzen delarik.

Pasa den igandean, Aranalderen heriotzaren urteurrenaren harira, *Gaztelun 400* ale banatu baziren ere, datorren ur-



Bidegileak liburuxkaren aleak omenaldian banatu zituzten. N. LIZARTZA



Bidegileak liburuxka argazkiz osaturik dago. N. LIZARTZA

LAU JAINKO

Lau Jainko zituela zioen Aranaldek: Aita Jainkoa, Osaba Orixe, Lizardi poeta eta Fernando Aire Xalbador

tera arte ezingo da Aranalderen biografiarik eskuratu. *Bidegileak* izenpeko liburuxkek, bilduma gisa funtzionatzen dute, lau aleka salduko baitira. Komunean duten gai bat hartu eta lau pertsonen biografiekin karpetatxo bat osatuko da. Orduantxe jarriko da salgai karpeta. Beraz, Joxe Mari Aranalderen liburuxka salgai izango da datorren urtean hiru lagun handirekin batera.

Sinismen handiko gizona izaki, «guztien gainetik zeruetako bere Aita Jainkoa maite eta errespetatzen» zuela azaltzen du idazleak. Bigarren Jainko gisa Osaba Orixe omen zuten, «gogotik maite» baitzuen. Joxe Mari Agirre Lizardi poeta fina zuten hirugarren jainkotzat Aranaldek. Laugarrentzat, berriz, «Fernando Aire Xalbador zeruetatik beti gora» jasoko zuela gogoratzen du liburuaren idazleak. «Neke pasako zait egun bat artzaiaz oroitu gabe» idatzi zuen Aranaldek.

JOXE MARI IRIONDO ▶ KAZETARIA ETA IDAZLEA

«Pertsona zerbitzaria zen Aranalde, beti zerbitzatzeko prest»

Korrika eta presaka harrapatu dugu Joxe Mari Iriondo (Azpeitia, 1938) Aranalderen biografian idazlea. Hala ere, tarte bat eskaini dio TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZARI eta Aranalde lagun handia zuela aitortu du Iriondok, besteak beste. Ahozko Literatura Batzordeko taldea oso markatua utzi duen elementua izan zela baieztatu du.

Nondik sortu zen liburua idazteko ideia?

Euskaltzaindiak, *Hilberria* egiteko eskaini zidan. Gainera, material asko nuen eta Aranalderen harreman handia nuen *Bidegileak* egiteko eskaini zidaten.

Lortutako emaitzarekin gustura geratu al zara?

Oso gustura hartu nuen lan proposamena eta oso gustura eginiko lana izan da. Emaitzari dagokionez, nire gusturako laburregia dela esango nuke; baina *Bidegileak* sailaren le-

gea hori da, laburra izatea, alegia.

Aranalderekin harreman handia eta estua zenuela aipatu duzu.

1962az geroztik harreman handia izan nuen. Euskaltzaindiako Ahozko Literatura Batzordean elkarrekin egon ginen, Eusko Jaurlaritzako Ahozko Batzordean ere bai, baina batez ere, bertso jaialdietan lan asko egin genuen elkarrekin.



UZTARRIA

Aranalderi buruzko liburutik zer edo zer azpimarratzekotan?

Berak lau jainko zituela esaten zuen, horixe azpimarratuko nuke nik, Aita Jainkoa, osaba Orixe, Lizardi eta Xalbador. Baita zerbitzatzeko zuen obsesioa ere. Beti zerbitzatzeko prest zegoen, eta aurpegi onarekin gainera. ◀

IBARRA ▶

Kilometroetarako autobus txartelak salgai Zubiaurren

Igandean Oartzunen ospatuko den Kilometroako 2006rako autobusa antolatuko du Ibarra Gatzte Azonbladak. Autobusa 09:00etan abiatuko da Ibarra Kultur Etxetik eta 21:00etarako izango da bueltan. Txartelak Zubiaurre tabernan daude salgai; Ibarra ikasle eta langabetuentzat 5 eurotan, gainontzekoentzat 9 eurotan.

LEABURU ▶

Herri Batzarra gaur 20:00etan gazte gelan

Ekzer abertzaleak antolatuta, gaur iluntzeko zortziretan Herri Batzarra izango dute Leaburuko gazte gelan. Herri Batzarreko hizketa gai nagusia, 2006 eta 2007 arteko ikasturte politikoaren inguruko plangintza izango da. Interesatuak, ager daitezela 20:00etan, gazte gelara.

BERASTEGI ▶

Castejonera irteera egingo dute, etzi

Etzirako, Castejonera (Espainia) irteera antolatu dute Berastegin. Irteeraren antolatuzailea Gatzteainondo Jubilatuek elkartea izan da. Herriko enparantzan dute irteeraren hitzordua, 08:15ean. Irteerara joan nahi duenak, beraz, Gatzteainondo Jubilatuek elkarteko zuzendaritzako partaideren bati abisua eman behar dio izena emateko. Irteeraren prezioa zortzi eurokoa izango da.

BELAUNTZA ▶

Haroko CVNE bodegara irteera, etzi

Etzi, Haroko (Espainia) CVNE bodega ezagutzeko irteera antolatu dute Kultur Etxetik. Irteera, Andreseneko bidegurutzetik egingo dute, 09:30ean. Haron, Errioxako produktuekin osaturiko bazkaria egingo dute, baita bodegako ardoen dastaketa ere. Prezioa 25 eurokoa da eta izen-ematea Kultur Etxean edo 943 67 00 20 telefonozenbakian egin daiteke.

OKINDEGIA ETA GOZOTEGIA



Gora Sanmixelak!

Kale Naguia, 1 • IRURA
Tel.: 943 69 43 56

Taberna · Jatetxea
alokatzen da
Alegian
943 65 28 16
629 91 19 36

LEITZA ▶ PILOTA

Leitzako Pilota Txapelketako irabazleak, erabakita

ERREDAKZIOA

Leitzako II. Pilota Txapelketak baditu aurten irabazleak. Iragan igandean jokatu zituzten sei maila ezberdinetako pilotariak euren finalak, Leitzako Amazabal pilotalekuan. «Jende andana» bildu zen bertan eta «pilotalekua beteta zela, tanteo politak ikusteko aukera izan zen», Ana Zelaita txapelketako arduradunak azaldu duenez.

Leitzako eskolako sei ordezkari aritu ziren finalean —Mikel Sagastibelza Egues, Mikel Sagastibelza Lasarte, Jon Iparragirre, Jon Jaunarena, Aritz Sagastibelza eta Mikel Olazabal—. Gehienek ere ez zuten hutsik egin eta maila «ona erakutsi zuten». Hauetatik laurek eraman zuten txapela etxera eta, bereziki, Mikel Olazabal eta Jon Jaunarena pilotariak eginiko lana nabarmendu zuen Zelaitak, azken honek finala irabazi ez bazuen ere. «Oso txapelketa ona burutu dute biek ala biek euren bikoteekin eta etorkizun handia dutela erakutsi dute».

09:30ean hasi zen lehen partida, benjaminen eskutik eta 15:30ak aldera amaitu zuten nagusienek. Urduritasunak urduritasun, pilotariak «nahiko ongi» moldatu ziren finalean, baina «espero baino luzeago jo zuen goizak, neurketa luzeak izan zirelako». Hala ere, jendeak ez zuen aspertzeko astirik izan eta «maila altuko partidekin» gozatu ahal izan zuten. Halaber, bertaratuentzat lunch-a eskaini zuten antolatzaileek.

Ohorezko ikusleak ere eseri ziren harmailetan, Abel Barriola eta Oinatz eta Ibai Bengoetxea anaiak, hain zuzen ere. Profesionalak adi-adi jarraitu zuten harrobikoen jokoak, «gaztetxoan gozamenerako». Behin

Leitzako pilota eskolako sei ordezkari aritu ziren finalean, iragan igandean; «maila altua» erakutsi zuten pilotariak



Ezker-eskuin, Beñat Mitxelena, Abel Barriola eta Mikel Olazabal, sariarekin. NEREA LIZARTZA

norgehiagokak erabakita, dantzariak aureskua eskaini zieten pilotariari. «Hirurek banatu behar zituzten sariak hasiera batean, baina Oinatzek San Mateoa Txapelketa zuenez lehenago joan behar izan zuen», argitu zuen Ana Zelaitak. Hala, Abel Barriolaren eta Ibai Bengoetxearen eskutik jaso zituzten pilotariak txapela eta garakurrak.

Hirugarrenerako prest

Orokorrean «pozik eta gustura» azaldu dira antolatzaileak bigarren edizioak emandakoarekin. Balorazio «positiboa» egin dute, beraz, nahiz eta arazoak egon diren. «Duela hiru hilabete hasi ginen gogor lane-

SARI BANAKETA

Abel Barriolak eta Ibai Bengoetxeak banatu zizkieten sariak Leitzako Pilota Txapelketako irabazleei

an eta hasiera batean antolatutako egitaraua berrantolatu behar izan genuen», azaldu du Zelaitak. Izan ere, Lazkaoko Txapelketa abiarazi zuten, bai eta Najerakoa (Errioxa, Espainia) ere. Hori dela eta, Leitzako Pilota Txapelketan parte hartu behar zuten hainbat pilotariak kale egin zuten eta egitaraua hankaz gora geratu zen. «Baina guztia ongi ateratu da eta hori da

garrantzitsua; jendearen esker oneko hitzek ere laguntzen dute».

Hau guztia dela eta, hirugarren edizioa egiteko prest azaldu da Ana Zelaita, «lan handia

bada ere, azkenean merezi duelako». Helburua bakarra izango da, herritarren artean pilota sustatzea eta gaztetxoenei zaletasuna piztea, hain zuzen ere.

EMAITZAK ▶

Iragan igandean jokatu zituzten Leitzako II. Pilota Txapelketako finalak Amazabal pilotalekuan. Hauek dira emaitzak, mailaz maila banatuta:

BENJAMINAK

▶ **Mikel Sagastibelza Egues** - Iker iribarria 18 / **Mikel Sagastibelza Lasarte** - Iñigo Larunbe 15.

ALEBINAK

▶ **Harkaitz Unzalo** - Iñaki Bernabe 7 / **Jon Iparragirre** - Erik Jaka 18.

INFANTILAK

▶ **Ugaitz Arrieta** - Txomin Zinkunegi 18 / **Jon Idoate** - **Jon Jaunarena** 16

KADETEAK

▶ **Aritz Sagastibelza** - Eneko Perasanz 16 / **Aurtenetxe** - Ander Olalde 22.

JUBENILAK

▶ **Hodei Iturrioz** eta **Eder Ibarra** 22 / **Xabier Andreu** - **Alejandro Nubla** 15.

NAGUSIAK

▶ **Mikel Olazabal** - Beñat Mitxelena 22 / **Yurgi Larrañaga** - **Igor Baez** 12.

Kazetari lanetarako pertsona bat behar du komunikabide batek.

- Egunean 6 ordutarako.
- Leitza ingurukoa izatea hobetsiko da.

Interesatuak deitu lehen bait lehen 661 67 22 17 telefono zenbakira.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Tel.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.nfo



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Irura. San Miguel jaien baitan, 18:00etan, haurren arteko pala eta xare partidak, Trinketean; 19:30ean, kalejira Trinketetik Share elkarteraino Loatzo musika eskolako trikitilariekin eta buruhandi eta erraldoekin. Ondoren, txistor jatea Share elkarteraino; 22:30ean, Lakrikun taldearen *Zintzilik* antzerkia, frontoian.
Tolosa. 17:00etan, ETB-ko Betizu saioak *Egin kantu!* saioa grabatuko du, Triangulo plazan.

ZINEMA

Tolosa. *Vete y vive* filma ikusgai, 21:30ean, zine forum saioan, Leidorren.
Tolosa. *Hego Amerika motoz, Cheren bidetik* dokumentala ikusgai, 20:15ean, Leidorren; Angel Cuervo eta Fabiola Jubin abenturazaleen bidaia.
Villabona. *Paradise now* filma ikusgai Gaztebaxean, zine-klub saioan, 22:00etan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Leizta. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.
Tolosa. Olarreaga, A. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.

IRRATIA

Txolarre irrattia (107.5, 101.2 FM)

11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZaren errepaso, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
 18:00-19:00. *Adi Guri* irratsaioa, Anoeta Herri Ikastolako DBHko 1. eta 2. mailako ikasleentzako saioa.
 21:00-22:00. *Zaharrak berri*.
 22:00-23:00. *Street*.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Euskararen aldeko urratsa

TOLOSA ▶ Urkizutik Erniozabalera irteera egin zuten, iragan igandean, Laskorain ikastolakoek; bertan, 'Euskaraz bizi' mendi buzoia ezarri zuten



Iragan igandean *Euskaraz bizi* mendi buzoia ezarri zuten Laskorain ikastolakoek. HITZA

ERREDAKZIOA

Iragan igandean Laskorain ikastolako ikasle, irakasle eta familia ugari elkartu ziren euskararen aldeko urrats berri bat emateko helburuz.

Atarrabiako Paz Ziganda, Lizarra eta Gasteizko Euskararen aldeko taldeko lagunekin batera, «egun pasa ederra» izan zuten tolosarrek, ikastolako ar-



Hauxe da guztion artean ezarritako *Euskaraz bizi* buzoia. HITZA

duradunek jakitera eman dutenaren arabera. Guztira, 150 lagun baina gehiago elkartu ziren, euskararen aldeko ekimen honetan.

Goizean goiz, Urkizutik Erniozabalera joan eta bertan *Euskaraz biziren* aldeko mendi buzoia ezarri zuten; jarraian, ikastolako arduradunek eskainitako hamaiketakoarekin gozatzeo aukera izan zuten, «paraje berezi batean». Eguraldiak segurtasun handirik eskaintzen ez zuenez, Urkizun bazkaldu ordez Albizturrera jaitsi ziren bazkaltzera. Haatik, eguraldi kaskarrak ez zuen festa zapuztu eta bazkal ondoren, «izugarritzko giroa» izan zuten. Hala, herri kiroletan aritu ondoren, ikastolako ikasleek osaturiko txarangari esker dantza saio dibertigarria izan zuten.

Datorren urtean Gasteizko lagunei egokituko zaie mendi irteeraren antolaketa. Ikastolak, bere aldetik, ikasturtean zehar ibilaldi gehiago antolatuko ditu, beti ere euskararen alde lanean aritzeko.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
 Lore Egiguren (Anoeta). Zorionak Lore! Intza eta zure familiaren partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza Leitzan Udaletxeko bulegoa

hitza
 agurren tarte

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

hitza argazki lehiaketa eman botoa

BOTOA EMATEKO

- ▶ P. elektronikoz: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
- ▶ Telefonoz: 943 65 56 95

Botoaz gain, datu pertsonalak behar ditugu

Irabazleak urriak 1, igandeko egunkarian argitaratuko dira

Sari nagusia

Asteburua Euskal Herriko landetxe batean

2. saria

Plaza Etxeberri jatetxean afaria

ZOKETA APARTAK

PARTE-HARTZAILA ETA BOTOEMAILE
 guztien artean HITZAren motxila eta mendiko gerriko poltsa zozkatuko dira